2.– El Reglamento de cada Instituto determinará el número y características de la representación del alumnado que curse las titulaciones que el Instituto esté autorizado a impartir.

*Artículo 15.–* Otro personal vinculado a un Instituto Universitario de Investigación.

1.– Estará vinculado al Instituto Universitario de Investigación, sin ostentar la condición de miembro, otro personal en activo o emérito que colabore con las actividades del mismo, así como sus becarios de colabora-

bekadun lankideak eta bertako ikasketetako ikasleak ere.

Ikerketako institutuan ari diren EHUtik kanpoko pertsonen lankidetza bisitari, ohorezko lankide eta beste irudi batzuen bidez bideratuko da, EHUk horretarako berariaz zehaztutako arautegiari jarraituz.

2.– Bekadun doktoreak ikertzaile bisitaritzat hartuko dira.

## IV. KAPITULUA
## UNIBERTSITATEKO BEREZKO IKERKETA INSTITUTUEN EGITURA

### 1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK.

*16. artikulua.*– Antolatzeko almena.

Antolatzeko euren ahalmenarekin bat, unibertsitateko ikerketa institutuetako arautegiek zehaztu behar dute institutuen barne antolakuntza. Arautegiak institutuaren baitan sailak, taldeak edo bestelako egitura espezifikoak izan litezkeela xedatzen badu, euren definizioa, osaera, eginkizunak eta hornidura zehaztu behar ditu.

*17. artikulua.*– Gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoak.

1.– Unibertsitateko berezko ikerketa institutuetako gobernua bertako kontseiluei eta zuzendariei dagokie.

2.– Institutuetako kontseiluak kide anitzeko unibertsitateko ikerketa institutuetako gobernu, ordezkaritza edo administrazio organoak dira.

3.– Zuzendaria eta idazkaria kide bakarreko institutuetako gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoak dira.

4.– Dagokionean, institutuetako arautegiek unibertsitateko ikerketa institutuetako eta bertako barne sail edo egitura espezifikoetako gobernu, ordezkaritza eta administrazio organo osagarriak ezarri behar dituzte, eta honako hauek arautu behar dituzte berariaz:

a) Organo horiei esleitutako eginkizunak.

b) Organoen osaera. Organoak kide anitzekoak badira, unibertsitateko taldeek parte hartzen dutela bermatu behar da.

### 2. ATALA
### INSTITUTUETAKO KONTSEILUEI ETA KIDE ANITZEKO GAINERAKO ORGANOEI BURUZKOAK

*18. artikulua.*– Kontseiluen osaera.

1.– Unibertsitateko berezko ikerketa institutu bakoitzeko barne arautegiak zehaztu behar ditu institutuko kontseiluaren osaera eta hari dagozkion eskumenak. Gainera, 9.1 artikuluan zerrendatutako sektore

ción y el alumnado que curse alguna de sus enseñanzas.

La colaboración con el Instituto Universitario de Investigación del personal ajeno a la UPV/EHU se canalizará a través de las figuras de visitante, colaborador honorífico u otras, de acuerdo con lo previsto por la regulación que a tal efecto establezca la UPV/EHU.

2.– Los becarios doctores serán considerados investigadores visitantes.

## CAPÍTULO IV
## ESTRUCTURA DEL INSTITUTO UNIVERSITARIO DE INVESTIGACIÓN PROPIO

### SECCIÓN 1.ª DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 16.*– Capacidad de autoorganización.

En uso de su capacidad de autoorganización, el Reglamento del Instituto Universitario de Investigación establecerá la organización interna del Instituto. En caso de que prevea la existencia en su seno de secciones, grupos u otras estructuras específicas, el Reglamento deberá establecer su definición, composición, funciones y dotación para su funcionamiento.

*Artículo 17.*– Órganos de gobierno, representación y administración.

1.– El gobierno de los Institutos Universitarios de Investigación propios corresponde a su Consejo y al Director o Directora.

2.– Es órgano colegiado de gobierno, representación y administración de un Instituto Universitario de Investigación el Consejo de Instituto.

3.– Son órganos unipersonales de gobierno, representación y administración de un Instituto la Directora o el Director y el Secretario o la Secretaria.

4.– El Reglamento del Instituto establecerá, en su caso, los órganos complementarios de gobierno, representación y administración del Instituto Universitario de Investigación o de sus secciones o estructuras internas específicas regulando de manera expresa:

a) Las funciones atribuidas.

b) La composición del órgano, que, en el caso de ser colegiado, deberá garantizar la participación de los distintos sectores universitarios.

### SECCIÓN 2.ª
### DEL CONSEJO DE INSTITUTO Y DEMÁS ÓRGANOS COLEGIADOS

*Artículo 18.*– Composición del Consejo.

1.– El Reglamento interno de cada Instituto Universitario de Investigación propio determinará la composición y competencias de su Consejo de Instituto, en el que se garantizará la representación de todos los sec-

guztiak ordezkatuta daudela bermatu behar du. Zuzendaria eta idazkaria kontseiluko berezko kide dira.

2.– Irakasleen, ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkarien agintaldia lau urtekoa da. Ikasleen ordezkarien agintaldia urtebetekoa da.

3.– Ordezkariak Hauteskunde Araubide Orokorrean xedatutakoarekin bat aukeratu behar dira.

4.– Doktorego programetako ikasleen ordezkariak (ikerketako bekadun ez-doktoreenak barne) eta institutuak irakasteko baimena duen tituluetako ikasleen ordezkariak institutuko zuzendaritzak abendu oro horretarako deituko dituen bileretan aukeratu behar dira, errolda ofizialetan oinarrituta.

5.– Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute euren eginkizunak aurrera eramateko beharrezko dokumentazio eta informazio guztia eskatu eta eskuratzeko. Beraz, institutuetako arautegiek horretarako prozedura eta epeak jaso behar dituzte.

*19. artikulua.–* Ordezkari izateari uztea.

1.– Ordezkari eginkizunak pertsonalak eta besterenezinak dira, eta honako hauek dira ordezkari izateari uzteko arrazoiak:

a) Hiltzea edo ezintasunen bat izatea.

b) Hauteskundeak baliogabetzea.

c) Agintaldia amaitzea.

d) Dimisioa aurkeztea.

e) Ordezkaria aukeratu zuen taldekoa edo institutukoa izateari uztea

f) Bileretara behin eta berriro huts egitea: arautegiak bestelakorik xedatu ezean, organoaren elkarren segidako hiru bileratara edo txandakako bost bileratara justifikatu gabe huts egitea.

2.– Organoa eratu ostean, hutsik geratzen diren lekuak kasuan kasuko zerrendetako ordezkoek bete behar dituzte.

*20. artikulua.–* Institutuetako kontseiluen eginkizunak.

1.– Honako hauek dira institutuetako kontseiluen eginkizunak:

a) Institutuetako zuzendariak hautatzea, arautegiek ezarritakoari jarraiki.

b) Urteko txosten ekonomikoa eta institutuetako urteko memoria eta eginkizunen plana onartzea.

c) Unibertsitateko berezko tituluak lortzeko balio duten eta ez duten ikasketa eta irakaskuntza eskaintzak proposatzea.

tores relacionados en el art. 9.1. Formarán parte del Consejo como miembros natos el Director o Directora y el Secretario o Secretaria.

2.– La duración del mandato de la representación del personal docente e investigador y del personal de administración y servicios será de cuatro años. La duración del mandato de la representación del alumnado será de un año.

3.– La elección de los representantes respetará lo dispuesto por el Reglamento de Régimen Electoral General.

4.– La representación del alumnado de doctorado, con inclusión de los y las becarias de investigación no doctores, y la del alumnado de las titulaciones que el Instituto esté autorizado a impartir serán elegidas en las correspondientes reuniones convocadas al efecto anualmente en el mes de diciembre por la Dirección del Instituto, con base en los respectivos censos oficiales.

5.– El Reglamento del Instituto establecerá el procedimiento y los plazos que permitan el ejercicio por parte de las y los miembros del órgano colegiado de su derecho a solicitar y acceder a toda la documentación e información necesaria para el ejercicio de sus funciones.

*Artículo 19.–* Pérdida de la condición de representante.

1.– La condición de representante es personal e intransferible, perdiéndose por:

a) Fallecimiento o incapacidad.

b) Anulación del proceso electoral.

c) Extinción del período de mandato.

d) Dimisión.

e) Dejar de pertenecer al Instituto o al colectivo por el que fue elegido.

f) Inasistencia reiterada. Salvo que en el Reglamento se disponga otra cosa, por inasistencia injustificada a tres sesiones consecutivas del órgano o a cinco alternas.

2.– Constituido el órgano, las bajas que se produzcan serán cubiertas con los suplentes de las respectivas listas.

*Artículo 20.–* Funciones del Consejo del Instituto.

1.– Son funciones del Consejo del Instituto:

a) Elegir al Director o Directora del Instituto conforme a lo establecido en su Reglamento.

b) Aprobar el Informe económico anual, la Memoria anual del Instituto y su Plan de actividades.

c) Proponer ofertas de estudios y enseñanzas conducentes o no a títulos propios universitarios.

d) Beharrezko bitartekoak sortu eta ekimenak egitea, institutuetako jardunaren kalitatea sustatu eta hobetzeko, baita kudeaketa eragingarria bermatzeko ere Europa, Estatu eta Euskal Autonomia Erkidego mailako programen baitan.

e) Irakasleei eta ikertzaileei ikerketa eginkizunetan eta ekimenetan laguntzea.

f) Kideen eta institutuetako gainerako langileen jardunari buruzko informazio arrazoitua ematea.

g) Ohorezko lankideak izenda daitezen proposatzea.

h) Zientziaren, teknikaren eta artearen alorreko lanak egiteko Estatutuetako 141. artikuluan xedatutako kontratuak egiteko baimenak ematea, betiere, sailen eskumenen esparruan eta Gobernu Kontseiluak onartutako araudiari jarraiki.

2.– Orobat, honako eginkizun hauek ere dituzte institutuetako kontseiluek:

a) Gobernu Kontseiluari institutuetako arautegien proiektuak eta, halakorik balego, haien erreforma proiektuak aurkeztea, onar ditzan, eta ordezkariak hautatzeko beharrezko garapen arauak ematea, arautegietan jasotako eskumenen esparruan. Institutuetako zuzendaritzak deitu behar du hauteskundeetara.

b) Dagokionean, Gobernu Kontseiluari lankidetza hitzarmenak onar daitezen proposatzea, eginkizunak hobeto eramateko aurrera.

c) Institutuetako jarduerak ikastegiekin, sailekin eta EHUko beste institutuekin koordinatzeko programak onartzea.

d) Dagokionean, institutuei egokitutako gune fisikoak esleitzeko irizpideak onartzea.

e) Administrazioko eta zerbitzuetako langileei buruzko politikaren berri ematea. Politika hori Gobernu Kontseiluak onartu behar du, errektorearen proposamenari jarraiki.

f) Indarrean dagoen legediak, EHUko Estatutuek eta horiek garatuko dituzten arauek zehaztutako gainerako guztiak, baita eskuordetzen zaizkionak ere.

*21. artikulua.–* Bilera motak eta bileren aldizkakotasuna.

1.– Bilerak ohikoak eta ez ohikoak izan daitezke.

2.– Deialdiak ohiko bileretarako egin behar dira oro har. Institutuko kontseiluak ohiko bilera egin behar du sei hilabetean behin gutxienez.

3.– Ezohiko bilera egingo da bileran aztertuko den gaiak hala eskatzen duenean eta, baita ere, arautegi aplikagarriak xedatutako kasuetan. Ez ohiko bileretako gai zerrendan ezin dira honako gai hauek agertu: aurreko akten onespena eta galde-eskeak.

d) Crear los instrumentos necesarios y adoptar toda clase de iniciativas que contribuyan a la promoción y mejora de la calidad de la actividad del Instituto, así como para asegurar su gestión eficaz en el marco de los programas europeos, estatales y de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Apoyar las actividades e iniciativas investigadoras de su personal docente e investigador.

f) Informar motivadamente sobre la actividad de sus miembros y demás personal vinculado al mismo.

g) Proponer el nombramiento de colaboradores honoríficos.

h) Autorizar la celebración de los contratos previstos por el artículo 141 de los Estatutos para la realización de trabajos científicos, técnicos o artísticos, en el marco de su competencia y con arreglo a la normativa aprobada por el Consejo de Gobierno.

2.– Igualmente, corresponde al Consejo de Instituto:

a) Elevar al Consejo de Gobierno, para su aprobación, el Proyecto de Reglamento y, en su caso, de su reforma, así como dictar, en el ámbito de las competencias recogidas en sus respectivos Reglamentos, las normas de desarrollo correspondientes a las elecciones de representantes, que serán convocadas por la Dirección del Instituto.

b) Proponer, en su caso, al Consejo de Gobierno la aprobación de convenios de colaboración para el mejor cumplimiento de sus funciones.

c) Aprobar programas de coordinación de sus actividades con centros, departamentos, y otros institutos de la UPV/EHU.

d) Aprobar, en su caso, los criterios para la asignación de los espacios físicos atribuidos al Instituto.

e) Informar sobre la política de personal de administración y servicios que a propuesta del Rector aprobará el Consejo de Gobierno.

f) Cuantas otras le otorguen la legislación vigente, los Estatutos de la UPV/EHU y sus normas de desarrollo, así como cuantas otras le sean delegadas.

*Artículo 21.–* Clases y periodicidad de las sesiones.

1.– Las sesiones podrán ser ordinarias y extraordinarias.

2.– Las convocatorias deberán ser, generalmente, para sesiones ordinarias. El Consejo de Instituto celebrará, cuando menos, con carácter ordinario una reunión por semestre.

3.– Las convocatorias serán para sesiones extraordinarias cuando la naturaleza del asunto lo requiera o así lo disponga la normativa aplicable. En el orden del día de las sesiones extraordinarias no se incluirá ni aprobación de actas anteriores ni ruegos ni preguntas.

4.– Presazko bilerak ezohikoak dira eta deia 24 ordu lehenago egin behar da gutxienez. Halakoetan, bilera egiteko arrazoia benetan premiazkoa dela berretsi behar da bileraren hasieran. Berresten ez bada, bilera bertan behera geratuko da besterik gabe.

*22. artikulua.*– Bilerarako deia egitea.

1.– Kide anitzeko organoetako buruak egin behar du bileretarako deia.

Kide anitzeko organoetako kideen %33k eskatzen badute, organoen bilerara deitu behar da. Bilera horiek ez ohikoak dira eta zazpi egun balioduneko epean egin behar dira gehienez, eskaera egiten denetik hasita.

2.– Bilerarako deiak organoko idazkariak bideratu behar ditu, aurrerapen nahikoaz eta, edonola ere, bilerak baino gutxienez hiru egun lehenago. Bilerak non egingo diren, zein ordutan eta zein gai aztertuko diren adierazi behar da deialdian. Aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentuak aurrerapen nahikoaz eskuratzeko aukera izan behar dute Organoko kideek, eta, edonola ere, bilera baino 24 ordu lehenago.

3.– Edonola ere, gai zerrenda osatzen duten puntuak zehatz-mehatz jaso behar dira deialdietan. Puntu horien artean, organoko kideen %25ek, gutxienez, behar den garaian eta moduan eskatutakoak agertu behar dira. Ezin da hartu gai zerrendan agertzen ez diren puntuei buruzko ebazpenik; bileran organoko kideen bi heren baino gehiago badaude, ordea, eta bozkatu eta gehiengo absolutuak gaia premiazkoa dela uste badu, ebazpena har daiteke.

4.– Deialdiak jendaurrean egin behar dira, institutuetako kide guztiek izan dezaten haien berri.

*23. artikulua.*– Osaera.

1.– Kide anitzeko organoak balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen gutxienez heren bat egotea bigarren deialdian. Institutuetako arautegietan zehaztu behar da lehen eta bigarren deialdiaren artean egon beharreko tartea. Edonola ere, organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute edo, bestela, euren ordezkoek.

2.– Institutuetako arautegiek botoa kide anitzeko organoetako beste kideen esku uzteko aukera onartu behar dute baina, ahal den neurrian, mugak zehaztu behar dituzte. Kide anitzeko organoetako kideek beste baten ordez baino ezin dute eman botoa. Organoak eratzeko quoruma dela-eta, ezin dira zenbatu organoetako kideek beste batzuen esku utzitako botoak.

Organoetako kideek idatziz adierazi behar dute botoa eskuordetu egin dutela, eta idatzi hori bilerako aktari erantsi behar zaio.

4.– Las reuniones urgentes tendrán carácter extraordinario y podrán convocarse con una antelación de 24 horas como mínimo. En estos supuestos, al comienzo de la reunión deberá ser ratificada la urgencia de la convocatoria. La no ratificación supondrá la finalización automática de la sesión.

*Artículo 22.*– Realización de la convocatoria.

1.– Corresponde a la presidencia de cada órgano colegiado realizar la convocatoria de las sesiones de dicho órgano.

Deberá convocarse al órgano colegiado a petición de un tercio de sus miembros, debiendo celebrarse la sesión con carácter extraordinario en el plazo máximo de siete días hábiles desde la solicitud.

2.– La convocatoria se formalizará por la Secretaría del órgano con la suficiente antelación y como mínimo tres días antes de la celebración de la sesión; en ella se expresarán el lugar, la hora y el orden del día de la reunión. La documentación relativa al orden del día habrá de estar a disposición de los miembros del órgano con la suficiente antelación y, en todo caso, 24 horas antes de la reunión.

3.– En todo caso han de especificarse con la debida precisión en la convocatoria los puntos que integran el orden del día, que deberán incluir los solicitados en tiempo y forma por al menos un cuarto de los miembros del órgano. No podrá adoptarse decisión sobre ningún asunto que no figure incluido en el orden del día, a menos que estén presentes más de dos tercios de los miembros del órgano y se declare la urgencia del asunto con el voto favorable de la mayoría absoluta de los presentes.

4.– La convocatoria deberá hacerse pública para general conocimiento de todos los y las miembros del Instituto.

*Artículo 23.*– Constitución del órgano colegiado.

1.– El órgano colegiado quedará válidamente constituido en primera convocatoria, con la presencia de la mayoría absoluta de sus miembros y, en segunda convocatoria, con la presencia de al menos la tercera parte de sus miembros. El Reglamento del Instituto establecerá el plazo a respetar entre la primera y segunda convocatoria. En todo caso, será necesaria la asistencia de la Presidencia del órgano y de la persona que ocupe la Secretaría o, en su caso, de las personas que les sustituyan.

2.– El Reglamento del Instituto podrá admitir la delegación de voto en otros u otras miembros del órgano colegiado, fijando, en lo posible, los correspondientes límites. Cada uno de los y las miembros del órgano colegiado podrá ejercer como máximo un voto delegado. A los efectos de alcanzar el quórum constitutivo, no se computarán las delegaciones de voto.

La delegación deberá estar formalizada por escrito e incorporarse como anexo al Acta de la sesión.

3.– Organoa bigarren deialdian eratzeko beharrezko quoruma bozketa guztietan izango da beharrezkoa.

*24. artikulua.*– Bileren nondik norakoak.

1.– Kide anitzeko organoetako buruek antolatu behar dituzte bilerak eta, horretarako arrazoirik egonez gero, bertan behera utz ditzakete.

2.– Eztabaidak gai zerrendari jarraiki egin behar dira. Dena dela, beharrezkoa izanez gero, kide anitzeko organoak bileraren ordena aldatzea ebatzi dezake, organoko buruak proposamena egin ondoren.

3.– Beharrezko jotzen badute, organoetako buruek gaia bozkatu aurreko eztabaidaren denbora muga dezakete, bai eta ordura arte egon daitezkeen parte hartzeen kopurua ere.

4.– Kide anitzeko organoko kideek beren botoa eta horren azalpena agerraraz dezakete aktan; azalpena idatziz eman behar dute bozkatzean. Unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto partikularrak beti agerrarazi behar dira proposamenekin batera.

5.– Egoki deritzonean, kide anitzeko organoko buruak organoko kide ez diren pertsonak gonbida ditzake bileretara, gai zerrendako punturen batekin zerikusia duen iritzia edo informazioa eman dezaten. Aktan jaso egingo da bileran gonbidatuak izan direla, botoa emateko eskubidea izan ez arren.

*25. artikulua.*– Botazioa.

1.– Ebazpenak hartu ahal izateko, emandako boto baliodunen gehiengo soila behar da, Estatutuek, institutuetako arautegiek edo gainerako lege xedapenek beste gehiengoren bat eskatzen duten kasuetan izan ezik. Horrenbestez, proposamen bakarra izanez gero, onartu egingo da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago badira. Bi proposamen badaude, aldeko boto gehien lortzen dituena onartuko da. Bi proposamen baino gehiago daudenean, emandako botoen gehiengoa lortzen duena onartu behar da edo, lehenengo botazioan boto gehien lortu dituzten bi proposamenen artean, bigarren botazioan boto gehien lortzen dituena.

Berdinketa izanez gero, berriro egin behar da botazioa; orduan ere berdinketa izanez gero, organoko buruek kalitatezko botoa erabili behar dute.

2.– Botazioek isilpekoak izan behar dute kide anitzeko organoko kideren batek hala eskatzen badu. Dena dela, botazioek beti izan behar dute isilpekoak, pertsonei buruzkoak badira.

3.– Aurkako botoa ematen dutenek ez dute erantzukizunik izango kide anitzeko organoak hartutako ebaz-

3.– El quórum necesario para la constitución en segunda convocatoria habrá de mantenerse en toda votación.

*Artículo 24.*– Desarrollo de la sesión.

1.– Corresponde a la Presidencia del órgano colegiado, asegurar un desarrollo ordenado de la sesión, que podrá suspender en cualquier momento por causa justificada.

2.– Los debates se ajustarán al orden del día. No obstante, podrá ser alterada la secuencia por acuerdo del órgano colegiado cuando así lo aconsejen las circunstancias y a propuesta de quien presida la sesión.

3.– La Presidencia del órgano podrá limitar, si las circunstancias así lo aconsejan, el tiempo total del debate o el número de intervenciones sobre un tema antes de pasar a las correspondientes votaciones.

4.– Los y las miembros del órgano colegiado podrán hacer constar en el acta su voto particular y los motivos que lo justifican, entregándolo por escrito en el momento de la votación. Cuando se trate de propuestas realizadas a otros órganos de la Universidad, los votos particulares de sus miembros se harán constar siempre conjuntamente con aquéllas.

5.– La presidencia del órgano colegiado podrá invitar a sus reuniones a personas que no sean miembros del mismo cuando lo estime oportuno, con el objeto de que aporten opiniones o informaciones de interés para el órgano colegiado en asuntos relacionados con algún punto del orden del día. Se hará constar en el acta de la reunión la asistencia de invitados, quienes en ningún caso tendrán derecho a voto.

*Artículo 25.*– Votación.

1.– Los acuerdos habrán de adoptarse por mayoría simple de votos válidamente emitidos, excepto en los supuestos en los que los Estatutos, el propio Reglamento del Instituto u otras disposiciones legales o reglamentarias exijan una mayoría diferente. En consecuencia, en caso de que existiera una única propuesta, ésta quedará aprobada si cuenta con más votos afirmativos que negativos. Si hubiera dos propuestas, se aprobará la que más votos obtenga. Habiendo más de dos propuestas, quedará aprobada aquella que obtenga la mayoría de los votos emitidos, o en segunda votación, la que obtenga más votos de entre las dos más votadas en la primera votación.

En caso de votaciones con resultado de empate, se efectuará una nueva votación y si persistiera el empate, la Presidencia del órgano deberá ejercer el voto de calidad.

2.– La votación será secreta siempre que lo solicite algún miembro del órgano colegiado y, en todo caso, cuando afecte a personas.

3.– Quienes voten en contra y hagan constar su motivada oposición quedarán exentos de la responsabili-

penetan, horretarako arrazoia jasota uzten badute. Horretarako, botazioak isilpekoak badira, interesdunek botoaren arrazoia azaltzen duen testua eman behar diete organoetako idazkariei, boto txartelarekin batera. Boto txartelak eta testuak aktei erantsi behar zaizkie.

*26. artikulua.–* Bileretako aktei buruzkoa.

1.– Idazkariak bilerako akta egin behar du. Akta bileran bertan edo hurrengoan onartu behar da, eta aktaren zirriborroa hurrengo bilerako gai zerrendari dagozkion dokumentuekin batera banatuko dira. Akta onartu ostean, idazkariak sinatu eta organoko buruak ontzat eman behar dute.

2.– Aktetan honako hauek jaso behar dira nahitaez: bilerara etorri direnen zerrenda eta bilera amaitu aurretik alde egin dutenen inguruko berariazko aipamena; gai zerrenda; bilera tokia eta ordua; bileran aztertutako puntuak; botazioak nola egin diren ea emaitzak; hartutako ebazpenen edukia eta, egoki joz gero, arrazoiaren azalpen laburra.

3.– Aktetan boto partikularrak ere jaso behar dira, kasuan kasuko kide anitzeko organoetako kideek hala eskatzen badute. Kide anitzeko organoko kideek euren parte hartzea edo proposamena aktetan hitzez hitz jasotzeko eska dezakete. Horretarako, idatziz aurkeztu behar dute testua eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak adierazitako epean.

4.– Kide anitzeko organoko kideek aktetan aldaketak egiteko proposamenak egin ditzakete aktak onartzeko unean. Idazkariak egiaztatu egin behar ditu proposatutako aldaketak eta, gehiengoak aldeko botoa ematen badu, onartu egin behar dira.

5.– Kide anitzeko organoa aldatu baino lehen, bilera egin behar da onartzeke dauden akta guztiak onartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa bada, akten zirriborroak bidali behar zaizkie kide anitzeko organoko kide zirenei, eta hamar eguneko epea eman edukiari buruzko erreklamazioak egiteko. Ez bada erreklamaziorik aurkezten esandako epearen barruan, aktak onartutzat eman behar dira; erreklamaziorik aurkeztuz gero, berriz, kide anitzeko organo berriak egin beharreko lehen bileran onartu behar dira.

6.– Onartu ostean, institutuetako arautegietan adierazi behar da aktak non emango diren argitara eta institutuetako kideek non eskuratu ahal izango dituzten kontsultak egiteko.

*27. artikulua.–* Ebazpenak argitaratzea.

1.– Idazkariak kide anitzeko organoak hartutako ebazpenen fede eman behar du eta ziurtagiriak egin behar ditu.

2.– Institutuetako arautegiek zehaztu behar dute nola argitaratuko diren hartutako ebazpenak. Ebazpenak hiru egun balioduneko epean argitaratu behar dira, eta pertsonen intimitatea babestu behar da.

dad que, en su caso, pueda derivarse de los acuerdos del órgano colegiado. A tal efecto, cuando la votación sea secreta, el interesado, en el mismo acto de votación, deberá entregar su papeleta a la Secretaría del órgano, junto con el texto explicativo de su motivada oposición, que quedarán adjuntados al acta.

*Artículo 26.–* Del acta de la sesión.

1.– La Secretaría levantará acta de la sesión. Las actas se deberán aprobar en la misma o siguiente sesión y los borradores de las mismas se adjuntarán a la documentación que acompaña el orden del día de aquélla. Una vez aprobadas serán firmadas por la Secretaría con el Visto Bueno de la Presidencia.

2.– El acta incluirá necesariamente la relación de miembros asistentes, con mención expresa de quienes antes de la finalización de la sesión hayan excusado su presencia, el orden del día, el lugar y la hora en la que se ha celebrado la sesión, los puntos tratados, forma y resultado de la votación y el contenido de los acuerdos adoptados, en su caso, con una sucinta motivación.

3.– En el acta figurarán, a solicitud de las y los miembros del órgano colegiado interesado, los votos particulares en su caso formulados. Cualquier miembro del órgano colegiado puede solicitar la trascripción íntegra de su intervención o propuesta siempre que la aporte por escrito de forma inmediata o, en su caso, en el término que determine la Presidencia del órgano.

4.– Las y los miembros del órgano colegiado podrán proponer modificaciones al acta en el momento en que sea sometida a su aprobación. La Secretaría contrastará la propuesta de modificación que será aprobada con el voto favorable de la mayoría.

5.– Previa a la renovación del órgano colegiado se deberá convocar una sesión para la aprobación de las actas pendientes. En caso de que dicha convocatoria o sesión no hubiera sido posible, se remitirá el borrador de éstas a quienes eran miembros del órgano colegiado, que dispondrán de un plazo de diez días para hacer reclamaciones sobre su contenido. En el caso de que no se produzcan reclamaciones sobre su contenido transcurrido dicho plazo, se considerarán aprobadas; en caso contrario, se someterán a su aprobación en la siguiente sesión del órgano renovado.

6.– El Reglamento de Instituto establecerá el modo en que, una vez aprobadas, las actas se hagan públicas y queden a disposición de los miembros del Instituto para consulta general.

*Artículo 27.–* Publicidad de los acuerdos.

1.– La Secretaría dará fe de los acuerdos adoptados por el órgano colegiado y librará las correspondientes certificaciones.

2.– El Reglamento de Instituto establecerá el procedimiento de publicación de los acuerdos adoptados, en un plazo máximo de tres días hábiles, salvaguardando debidamente la intimidad de las personas.

3.– Aipatutakoaz gain, pertsonei buruzko ebazpenak interesdunei jakinarazi behar zaizkie. Ebazpenek jakinarazpena egiten den unetik aurrera izango dute eragina. Jakinarazpenak Administrazio Prozeduraren Legean xedatutako moduan egin behar dira.

*28. artikulua.*– Ebazpenak betearaztea eta errekurtsoak jartzea administrazio bidean.

1.– Kide anitzeko organoak hartutako ebazpenek onartzen direnetik aurrera izango dute eragina, ebazpenean bertan beste ezer adierazi ezean. Ebazpenak publikoak dira eta kasuan kasuko organoak jakinaren gainean jarri behar dira.

2.– Oinarrizko Arautegiko IV. tituluko II. kapituluak aipatzen dituen kide anitzeko organoek hartzen dituzten ebazpenen kontra, gorako errekurtsoa aurkez dakioke errektoreari hilabeteko epean.

3. ATALA.– KIDE BAKARREKO ORGANOEI BURUZKOAK

*29. artikulua.*– Xedapen orokorra.

1.– Institutuko kide bakarreko organoak zuzendaria eta idazkaria dira gutxienez.

2.– Institutuko zuzendari eta idazkari karguetan aritzeko, arduraldi osoz aritu behar da, legedian xedatutako salbuespenetan izan ezik. Ezin da, inolaz ere, kargu batean baino gehiagotan aritu.

*30. artikulua.*– Zuzendariei buruzkoak.

1.– Unibertsitateko ikerketa institutuetako zuzendariak institutuen ordezkariak dira eta institutuen zuzendaritza eta gestio arruntaz arduratzen dira.

2.– Institutuetako kontseiluek aukeratu behar dituzte zuzendariak, EHUko irakasle eta ikertzaile doktoreen artean, eta errektoreak izendatu behar ditu.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa da. Institutuetako arautegiek elkarren segidako agintaldi kopurua muga dezakete, edo gehiengo kualifikatua ezarri hirugarren eta hurrengo agintaldietarako.

4.– Estatutuetako 250. artikuluan jasotako arrazoiak direla-eta, zuzendariek zuzendari izateari utzi behar diote. Bertan Unibertsitateko Klaustroari dagokion zentsura mozioa egitea institutuetako kontseiluei dagokie kasu honetan.

5.– EHUko berezko ikerketa institutuak Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen aldeko txostena badauka, zuzendaria irakats betebeharretatik salbuetsi ahal izango da Zuzendaritza Kontseiluaren proposamenari jarraituz Gobernu Kontseiluak zehaztutako baldintzen babesean.

*31. artikulua.*– Institutuetako zuzendarien eginkizunak.

3.– Con independencia de lo anterior, los acuerdos nominativos habrán de notificarse a las personas a las que afecten directamente. El acuerdo será efectivo desde el momento en que se produzca la citada notificación en los términos establecidos por la Ley de Procedimiento Administrativo.

*Artículo 28.*– Ejecutabilidad y recurso en vía administrativa.

1.– Los acuerdos adoptados por el órgano colegiado serán efectivos desde su aprobación, si en los mismos no se hubiera dispuesto otra cosa. Los acuerdos son públicos y se dará traslado de ellos a los órganos que corresponda.

2.– Contra los acuerdos de los órganos colegiados relacionados en capítulo II del Título IV de este Reglamento Marco es posible interponer el correspondiente recurso de alzada en el plazo de un mes ante el Rector.

SECCIÓN 3.ª DE LOS ÓRGANOS UNIPERSONALES

*Artículo 29.*– Disposición general.

1.– Son órganos unipersonales del Instituto, al menos, el Director o Directora y el Secretario o Secretaria.

2.– Para el desempeño de los cargos de Dirección y Secretaría del Instituto se requiere la dedicación a tiempo completo, sin perjuicio de las excepciones contempladas en la Ley. En ningún caso se podrá desempeñar más de un cargo.

*Artículo 30.*– Del Director o Directora.

1.– Los Directores o Directoras de Instituto Universitario de Investigación ostentan la representación de éstos y ejercen las funciones de dirección y gestión ordinaria de los mismos.

2.– El Director o Directora es elegido por el Consejo del Instituto, de entre doctores pertenecientes al personal docente e investigador de la UPV/EHU, y nombrado por el Rector o Rectora.

3.– El mandato será de cuatro años. El Reglamento de Instituto podrá limitar el número de mandatos consecutivos o establecer una mayoría cualificada para el tercer o ulteriores mandatos.

4.– Los Directores cesan por las causas recogidas en el artículo 250 de los Estatutos. La moción de censura referida allí al Claustro Universitario lo será en este caso al Consejo de Instituto.

5.– El Director o la Directora del Instituto Universitario de Investigación propio de la UPV/EHU, evaluado positivamente por la Comisión de Investigación Desarrollo e Innovación, podrá ser eximido de sus obligaciones docentes conforme a los criterios y baremos que, a propuesta del Consejo de Dirección, fije el Consejo de Gobierno.

*Artículo 31.*– Funciones de la Dirección de Instituto.

1.– Honako eginkizun hauek dituzte institutuetako zuzendariek:

a) Unibertsitateko ikerketa institutuen ordezkari izatea.

b) Institutuetako kontseiluen buru izatea.

c) Institutuetako kideen eskariak eta iradokizunak jaso eta bideratzea.

d) Institutuetako administrazioko eta zerbitzuetako langileak funtzionalki zuzentzea.

e) Institutuen urteko memoria, eginkizunen plana eta txosten ekonomikoa osatzea.

f) Kontseiluek hartutako ebazpenak betearazi eta institutuek eta bertako kideek euren eginkizun akademikoak behar bezala gauzatzen dituztela bermatzea.

g) Institutuek zientzia, teknika, giza zientzia edo arte arloko ikerlanak egiteko egiten dituzten kontratuak sinatzea.

h) Isilpeko informazioa jendaurrean jakinaraz dadin agindu eta diziplina espedienteak abiaraz daitezen proposatzea.

i) Institutuetako beste organoei agindu ez zaien, unibertsitateko gobernu organoek eskuordetu ez dizkieten eta Estatutuek edo indarrean dagoen legediak egokitzen dien beste edozein eginkizun.

2.– Era berean, lankidetza hitzarmenak sinatu behar ditu, Gobernu Kontseiluaren jarraibideek xedatutako baldintzetan.

*32. artikulua.–* Unibertsitateko ikerketa institutuetako idazkariei buruzkoak

1.– Errektoretzak izendatu behar ditu idazkariak, institutuetako zuzendarien proposamenei jarraiki. Jardunean dauden irakasleak eta ikertzaileak izan daitezke idazkari.

2.– Honako hauek kargua uzteko arrazoi dira: dimisioa aurkeztea, heriotza, lege ezintasuna, institutuetako kide izateari uztea eta errektoreak hala ebaztea, zuzendariek proposatuta.

3.– Idazkariei dagokie institutuko idazkaritzak berezkoak dituen eginkizunak gauzatzea, baita bertako zuzendariak laguntzea ere.

